

## Prensa oharra

---

18/12/2015

# MATERIALS EVOLUTION-ek XV. Manuel Laborde Saria irabazi du

**Nanomaterial berriak berariazko software-tresnez diseinatzeko zerbitzu batean oinarritzen den proiektua da.**

**Ekimen sarituak 7.000 euro eta enpresa-proiektua garatzeko laguntza eta aholkularitza jasoko ditu.**

UPV/EHUko ikerketa-taldearekin lotutako Yann Pouillon, Federico Iori eta Ángel Rubio ikertzaileek aurkeztu duten **MATERIALS EVOLUTION** ekimenak **MANUEL LABORDE WERDERLINE LEHEN SARIA** jaso du, hamabosgarren edizioan, funtsean ideia berritzaileen arabeko oinarri teknologikoko enpresa-ekimen onena izateagatik. Aurkeztutako proiektua, simulazio-metodo ahaltsuen bidez materiaren modelizazioa lortzen duen zerbitzua da. Material berriak aurkitzeko eta sintetizatzen eta prozesuak zeharo azeleratzeko erabili ahal izango da.

Halaber, Uxune Etxeberriak aurkeztutako **idOMICS BIOTECH** ekimenak 2. saria eta 3.000 €-ko diru-kopurua jaso du. Nekazaritzako elikagaiak identifikatzeko eta karakterizatzen metabolomika erabiltzen duen ekimena horrek balio erantsia ematen dio elikagaiok segurtasunez eta fidagarritasunez kontsumitzeko.

Gainera, proposamen berritzaileek eta/edo oinarri teknologikoa dutenek BIC GIPZUKOA BERRILANek kudeatutako eta Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Foru Departamentuak eta Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen SPRIk artikulatutako laguntzak jaso ahal izango dituzte. Laguntza horiek 60.000 eurokoak izatea iritsi daitezke, proiektuen berrikuntza eta interes mailaren arabera.

Manuel Laborde Werlinden sariaren hamabosgarren edizio hau ENTREPRENARI Programaren barruan sustatzen da. Programa hori UPV/EHUk (Gipuzkoako campusak) eta Bic Gipuzkoa Berrilan Enpresa eta Berrikuntzara Zentro Europarrak garatu eta kudeatu dute eta bere helburua

ekintzaileak sustatzea eta haiei, aholkularitza eta laguntza ematea eta enpresa berritzaileak sortzea UPV/EHUko Gipuzkoako Campusean.

Saria UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileentzat da eta, halaber, enpresa berria sortuz UPV/EHUrekin batera egindako ikerketaren emaitzak ustiatzea erabakitzen duten enpresentzat eta UPV/EHUko tituludun, graduondoko eta azken urteko ikasleentzat.

Sariaren helburu nagusiak honako hauek dira:

- Ekintzailetza ideiak eta proiektuak sustatzea, unibertsitate inguruan.
- Enpresa-kultura bultzatzea eta zabaltzea unibertsitateko kolektiboan.
- Unibertsitateak duen ahalmen berritzailea aprobetxatzea enpresa berriak sortu eta garatzeko.
- Gure inguruan enplegua bultzatzeko formula berriak bideratzea.

Hamahiru proiektu aurkeztu ziren ideia berritzaile batean oinarritutako enpresa-ekimenik onena izateko saria irabazteko asmoz.

Sari banaketaren ekitaldian honako hauek parte hartu dute: Ana Arrieta, UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko errektoreordea; Ainhoa Aizpuru, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko diputatua; Aitor Urzelai, Eusko Jaurlaritzaren Ekintzailetza, Berrikuntza eta Informazio Gizartea, Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasunaren zuzendaria eta Marisa Arriola, Bic Gipuzkoa Berrilaneko zuzendari kudeatzailea. Ekitaldian, CIC biomaGUNEko zuzendari zientifikoa den Luis M. Liz-Marzan, irakasleak, "Investigación en biomateriales y beneficio social" izeneko txostena azaldu du. CIC biomaGUNETiko ikuspegia

Ekitaldi berean, **THINK BIG 2015 sariak eman dira Gipuzkoako edizioan:**

**1. saria** eta 2.500 €-ko diru-kopurua, "**INDE TOTEM**" ekimenari. **Pc-rako bideo-joko independenteak sustatzeko eta merkaturatzeko on-line plataforma da.** Ingeniaritza Informatikoko Graduoko Xabier Linazasorok aurkeztu zuen.

**2. saria**, eta 1.500 €-ko diru-kopurua, "**Eskalada ergonomia hobetzeko inder neurgailua**" izeneko ekimenari: Ingeniaritza Mekanikoko Graduoko eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Graduoko Iñigo Mugica-k eta Seber Iruretagoienak aurkeztu zuten.